

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Garraio Partzuergoa**

**Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen zerga-ordenantzaren aldaketaren behin betiko onespeneraren iragarkia.**

«Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei Bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateagatiko Tasak arautzen dituen zerga-ordenantza»-ren hasierako onespenera, 2022ko azaroaren 17ko 219 enbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, espedientea jendaurrean egon da hogeita hamar (30) eguneko epean eta epe horretan ez da behin-behineko onarpenaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Hori dela eta, jakinarazten da hasierako onarpena behin betiko bihurtu dela, eta jarraian behin betiko onartutako Ordenantza horri erantsitako aldaketan testua argitaratzen da:

**BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN TITULUEN ERABILTZAILAEEI  
BIDAIARI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASAK  
ARAUTZEN DITUEN ZERGA-ORDENANTZA**

XEDAPEN IRAGANKORRA

Hiri barruko eta hiriarteko lurreko garraio publiko kolektiboa sustatzeko asmoz, ibilgailu partikularra baino seguruagoa, fidagarriagoa, erosoagoa, ekonomikoa eta jasangarriagoa den garraiobide batera aldatzea sustatuz, eta, horrela, Ukrainako gatazkaren ondoriozko energiaren prezioen gorakadak eragindako lehengaien eta funtsezko zerbitzuen kostuaren gehikuntzaren ondoriozko kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre eginez, ordenantza fiskal honen 4.1 eta 4.2 artikuluetan jasotako zerga-kuotak %50 murriztuko dira aldi baterako sei hilabetez, indarrean jartzen denetik aurrera.

Bilbon, 2022ko abenduaren 31n.—Zuzendari Nagusia, Gorka Ugalde Martínez